

Eusko Jaurlaritzak aitortu du Oñeder zabortegiak kutsatu duela Oñedertxo erreka

Ur araztegi bat jarriko du enpresak isurketak egiteko, Gobernuak dioenez

I. Petxarroman / Donostia

Oñeder Zabortegiaren Aurkako Asanbladari igorri eta EGUNKARIAK esku-ratutako gutunean, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailak onartu du Oñedertxo erreka baimendutako berun eta ph kopurua baino askoz ere kopuru altuagoak dituela. Kutsaduraren eragilea, gainera, Oñeder S.A. enpresaren zabortegia dela aitortu du.

DENBORA luzea darama Oñederko Zabortegiaren Aurkako Asanbladak salatzen Oñedertxo erreka onartutakoak baino askoz ere berun eta ph kopuru altuagoak dituela, eta horren eragilea Oñederko altzairu hautsen zabortegia dela.

Iaz hasi zen aztertzen Eusko Jaurlaritzak kutsadura horren jatorria, enpresak berak, eta udalak behin baino gehiagotan esan baitute zaborteti hori baino gorago dagoen beste bat -GSBkoa, jadanik itxia- zela egoera horren eragilea.

Asanbladari igorritako gutunean Garraio eta Herrilan Sailak adierazi du frogatu ahal izan duela Oñederko zabortegiak eragiten duela ph eta berun kutsadura, eta enpresako arduradunekin bildu dela egoerari irtenbidea emateko. Jaurlaritzaren arabera, enpresak «sorpresaz» hartu zuen berria hasieran, berak kontratatutako beste enpresa batek probak egin ohi zituelako eta inoiz ez zue-



Oñeder S.A. zabortegia, Azkoitian (Gipuzkoa), iaz hartutako irudi batean.

lako kutsaduraren berri emam.

Ildo horretan, Jaurlaritzak dio enpresak berehala moztu zuela kutsatzaileek erreka iristeko zuten bidea. Halaber, ur arazgailua jarriko duela hitz eman dio enpresak Gobernuari, libixiatuak isurtzeko, baina Jaurlaritzak onartu kopuruan: 5,5 eta 9,5 ph eta 0,2 mg/l berun. Jaurlaritzak egindako azken frogan -maiatzaren 4an- berun kopurua 8,22 mg/l-koa zen, eta ph-a 11,7koa.

«Betiko itxi dezatela»

Oñeder Zabortegiaren Aurkako Asanbladak prentsa ohar batean adierazi duenez, hondakindegia «Urola ibaian eta herri osasuneko kalte etengabe eta saihestezinak» egiten ari da. Ondorioz, «lehenbailehen eta betirako ixteko arrazoiak soberan» daudela iruditzen zaio Asanbladari.

Haren esanetan, zabortegia mantentzen da irekita erakunde publikoek eta enpresariak hondakin toxikoen in-

guruan daramaten politikagatik. Politika horrek «ingurumena eta guztion osasunaren gainetik jartzen ditu gutxi batzuen irabazi ekonomikoak».

Oñeder zabortegiaren aurkako taldeak kontzentrazioa deitu du datorren larunbaterako, uztailak 29, Azkoitiko eliz atarian, eguerdiko 12:30etan.

Kontzentrazioarekin Oñeder zabortegia ixteko eskatu eta «hondakin toxikoak zermatzan kamioi bat gelditzeagatik» bost laguni egingo dieten epaiketa salatu nahi dute.

Asanbladak gogor salatu du Xabier Elias zabortegia kudeatzen duen Oñeder S.A.ko gerentearen jarrera. «Eliassen zinismo eta lotsagabekeria agerian utzi nahi dugu, inguru guztiak kutsatzen ari den enpresa baten buru denean, protesta ekintza bat kriminalizatu nahian dabilelako», adierazi dute.

Alain Roussetek euskararen toki handiagoa eskatu du irakasleen formakuntzan

■ Jack Lang Hezkunde ministroari idatzi dio eskaera horrekin

Erredakzioa / Baiona

ALAIN ROUSSET Akitaniako Kontseiluko lehendakariak Jack Lang Frantziako Hezkunde ministroari idatzi dio. Euskarak eta okzitanierak irakasleen formakuntzarako unibertsitatean duten toki «biziki eskasaz» ohartarazi du gutun horretan. «Eskualde hizkuntzen egoera hori onartezina iduritzen zait eta estatuaren esku dago horren konponetzea» idatzi dio. Jack Lang irakasleen formakuntza saileko egoera aldatzea eskatu dio.

Irakasleentzako okzitanierazko IUFM eta CAPE-Sik ez izatea damugarritzat jo du. «Irakasle gaiei euskara eta okzitanieraren sensibilizazio eta formakuntza moduluak sistematikoki proposatzea baitezpadakoa zait», gehitu du Roussetek. Informazio eta komunikazio teknologia berrien erabiltzea ere proposatu du. Distantziako formakuntzari atak idekitzeko erabili beharko lirateke teknika horiek, formakuntza adarren sakabanaketari eta kandidatu kopuru mugatuari aurre egiteko.

Alain Roussetek zehaztu du Akitaniarentzat «eskualde nortasunak agerian ezartzea lehentasunetan sartzen» dela. Hizkuntza horiek «modernitatearekin harreman hertsian» ezarri nahi dituzte. «Akitaniak berezitasun linguistikoak eta kulturalak baditu. Bere aberastasun eta aukerak dira», azpimarratu du.

Roussetek estatuaren eta eskualdearen arteko kontratu plana goraiatu du bere gutunean. Lehen aldikotz, estatuak eta eskualdeak erregio nortasunei balioa ematea ardatz nagusietan ezarri dutela azpimarratu du.

Espainiako oposizioak ontzat jo du CGPJk Atzerritarren Legeari buruz egin txostena

■ PPko Gobernuari eskatu diote ontzat har ditzala proposatutako aldaketak

Agentziak / Madril

ESPAINIAKO Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak gaur aztertuko du Ikerketa Batzordeak Atzerritarren Legeari buruz egin duen txostena. Txostenak «presazkotzat» jo du PPk bultzatu nahi duen aldaketa, eta eskatzen du bisa ukatzen ez den kasu guztiak arrazoiak izateko, eta ez dadila kendu etorkinen behatze judiziala.

EAJko Espainiako Kongresuko diputatu Margarita Uriak ontzat jo du txostena, eta eskatu dio Gobernuari kontuan har dezala CGPJren txostena.

PSOEk adierazi duenez, guztiz ados dago txostenaren edukiarekin, eta gaineratu du PPren gobernuak ez duela oso egoera ona nahi duen aldaketa aurrera eramateko.

CiUk galdegin dio Madrilgo Gobernuari bisaren eta babes judizialaren inguruan

CGPJk egiten dituen oharrazpenak kontuan hartzeko.

Gizarte erakundeek ere baikor baloratu dute epaile eta magistratuen erakundearen txostena. SOS Arrazakeriak esan duenez, PPren gobernuak berriz ere egin behar luke legearen aldaketaren testua, bestela «errespetu falta» adieraziko bailioke Parlamentuari.

Errefuxiatuentzako Laguntzarako Batzordeak (CEAR) ere «oso ontzat» jo du testua.

“Nire lagun minak zein ziren, beraien helbideak, telefonoen zenbakiak... galdetu zizkidaten”

Gran Hermano
GEZUR HANDI BATEN
INGURUKO EGIA OSOA

ARDI beltza